



**LEHENDAKARITZA**

*Azterlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**

*Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica*

**EAEKO BIZTANLEEK GIZON  
ETA EMAKUMEEN ARTEKO  
BERDINTASUNARI BURUZ  
DITUZTEN IRITZIAK**

**(EMAKUNDE)**

**2004ko martxo**



## Aurkibidea

|   |           |   |           |
|---|-----------|---|-----------|
| <b>SARRERA</b> .....  | <b>1</b>  |   |           |
| <b>LABURPENA</b> .....  | <b>5</b>  |   |           |
| <b>ZEHAZTASUN TEKNIKOAK</b> .....   | <b>10</b> |   |           |
| <b>A – GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAREN INGURUKO JARRERAK</b> ..... | <b>12</b> |   |           |
| • Berdintasunaren inguruko ideiak.....  | 13        |   |           |
| • Berdintasunaren garrantzia .....  | 15        |   |           |
| • Berdintasunaren ondorioak .....   | 17        |   |           |
| • Berdintasunari buruzko iritziak .....                                       | 19        |   |           |
| <b>B – GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN/EZBERDINTASUN EGOERA</b> .....  | <b>22</b> |   |           |
| • Etxeko lanetan.....   | 23        |   |           |
| • Lana lortzean .....   | 26        |   |           |
| • Lana eta familia bateratzean .....  | 28        |   |           |
| • Emakumeen egoerari buruzko iritziak: lana-langabezia.....                   | 31        |   |           |
|   |           | • Emakumeen egoerari buruzko iritziak: lanean mailaz igotzea .....        | 34        |
|   |           | • Emakumeen egoerari buruzko iritziak: hobetzeko konpromisoa.....         | 37        |
|   |           | <b>C – BERDINTASUNAREN ALDEKO JARDUERA ETA NEURRIAK</b> .....             | <b>39</b> |
|   |           | • Aldaketarako ekimena.....   | 40        |
|   |           | • Emakumeen banakako edo batera egindako ekintzaren eraginkortasuna ..... | 42        |
|   |           | • Berdintasunaren aldeko jarrera batzuen eraginkortasuna .....            | 44        |
|   |           | • Bizitza publikoan eragiteko neurriak .....                              | 46        |
|   |           | • Lan munduan eragiteko neurriak .....                                    | 49        |
|   |           | • Familia eta lan-bizitza bateratzeko neurriak.....                       | 52        |
|   |           | • Berdintasunerako neurri gehiagoen beharra....                           | 55        |
|   |           | • Berdintasunerako legearen beharra.....                                  | 57        |

## **Sarrera**

## Helburuak

Honako txosten honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruz duten iritzia jakitea, hau da, zer-nolako jarrera eta iritzia dituzten berdintasun kontzeptuari buruz, eguneroko ingurunean atzematen diren berdintasun/ezberdintasun egoerei buruz, eta berdintasun horren alde egin beharreko ekimen edo neurriei buruz.

Kasu jakin batzuetan, badira Europar Batasun osoari dagozkion datuak, eta horiek erabilia, EAEko eta EB osoko iritzien arteko konparazio geografikoa egin dezakegu.

## Informazio iturria

Lan honen emaitzak **2003ko udazkeneko Euskal Soziometroa 23**-ren barruan *ad hoc* eginiko galdera bloke batetik datoz. *Euskal Soziometroa*, oro har, EAEko unean uneko gizarte errealitatearen aldizkako ikerketa orokorragoa da.

Galdera jakin horiek **Emakunde** eskatuta osatu dira, eta, beraz, institutu horren eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen arteko elkarlanari esker taxutu dira galderak. Hala ere, informazio bilketa diseinatzea, antolatzea eta zuzentzea, ondoko azterketa estatistikoa, eta txostena idaztea eta editatzea Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen beraren eskumenekoak dira.

## Galak

- A – GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAREN INGURUKO JARRERAK:
  - **Berdintasunaren inguruko ideiak:** biztanleen bat-bateko ideiak (aurretik inolako erantzunik aditzera eman gabe) gizon eta emakumeen arteko berdintasunak burura ekartzen dienari buruz.
  - **Berdintasunaren garrantzia:** gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiari zer garrantzi ematen dioten, handia, hala-holakoa, txikia edo batere ez.
  - **Berdintasunaren ondorioak:** bat etortzen diren ala ez esaten zaienean gizon eta emakumeen arteko berdintasunak gizon eta emakumeen garapen pertsonala errazten duela, eguneroko bizimoduaren antolaketan zailtasunak sortzen dituela, familia harremanen aldaketa eskatzen duela, lanaren antolaketan aldaketa eskatzen duela, demokrazia sendotzen duela edo/eta giza harremanen kalitatea hobetzen duela.
  - **Berdintasunari buruzko iritzia:** gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko hainbat baieztapenekin ados, ez ados ez kontra edo kontra egotea.
- B – GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN / EZBERDINTASUN EGOERA:
  - **Etxeko lanetan:** bikotekidearekin bizi direnek berek diotenez, etxeko lanak zein neurritan banatzen diren.
  - **Lana lortzean:** gizon eta emakumeen iritzia, adin eta prestakuntza baldintza berdina izanda, ea zeinek duen lanpostua lortzeko aukera handiagoa.
  - **Lana eta familia bateratzean:** zer iritzi duten, gizon eta emakumeek batera lanean aritu eta haurrak izan ahal dituztela eragozpen handirik gabe ala askotan bietako bat aukeratu beharra dutela.

- **Emakumeen egoerari buruzko iritziak: lana-langabezia:** lanari, lana lortzeari eta langabeziari dagokienez, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun egoera aurruposatzen duten hainbat baieztapenekin ados, ez ados ez kontra edo kontra egotea.
  - **Emakumeen egoerari buruzko iritziak: lanean mailaz igotzea:** goi mailako ardura lanpostuak lortzeari dagokienez, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun egoera aurruposatzen duten hainbat baieztapenekin ados, ez ados ez kontra, edo kontra egotea.
  - **Emakumeen egoerari buruzko iritziak: hobetzeko konpromisoa:** administrazio publikoak, enpresek, sindikatuak eta bestelako gizarte taldeek emakumeen egoera hobetzeari garrantzi handiago eman behar lioketelako ideiarekin ados, ez ados ez kontra edo kontra egotea
- C – BERDINTASUNAREN ALDEKO JARDUERA ETA NEURRIAK:
    - **Aldaketarako ekimena:** zer iritzi duten, gizon eta emakumeen artean izan daitezkeen ezberdintasunak desagertzeko, lehenik gizonak ala emakumeak aldatu behar duten, ala bietan batera.
    - **Emakumeen banakako edo batera egindako ekintzaren eraginkortasuna:** zein jotzen den erarik eraginkorrenzat gizon eta emakumeen artean izan daitezkeen ezberdintasunak gutxitzeko edo desagertzeko: emakumeak elkartuta aritzea beren eskubideen alde, emakume bakoitza bere eskubideak babesteko borrokatzea ala biak.
    - **Berdintasunaren aldeko jarrera batzuen eraginkortasuna:** Gizon eta emakumeen artean izan daitezkeen ezberdintasunak gutxitzeko edo desagertzeko hainbat jarreraren eraginkortasunari buruzko iritzia.
    - **Bizitza publikoan eragiteko neurriak:** bizitza publikorako proposatzen den hainbat neurriekin ados, ez ados ez kontra edo kontra egotea.
    - **Lan munduan eragiteko neurriak:** lan bizitzarako proposatzen den hainbat neurriekin ados, ez ados ez kontra edo kontra egotea.
- **Familia eta lan bizitza bateratzeko neurriak:** familia eta lan bizitza bateratzeko proposatzen den hainbat neurriekin ados, ez ados ez kontra edo kontra egotea.
  - **Berdintasunerako neurri gehiagoren beharra:** gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde neurri gehiago hartu beharko liratekeen, badaudenak nahikoa diren ala neurri gehiegi hartu diren eman behar dute iritzia.
  - **Berdintasunerako lege baten beharra:** zer iritzi duten, EAEn gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako lege batek egon beharko lukeen ala ez.

### Zehaztapen metodologikoak

- Datuen **fidagarritasuna eta baliozkotasuna** oso lagin adierazgarri batek bermatzen ditu, bai EAE osorako bai lurralde bakoitzerako, eta, halaber, inkestaren azken emaitzen eta, datu egiaztagarriak daudenean, argitaratutako bestelako kanpo erreferentzia objektiboen arteko ezberdintasunen ebaluazioak ere bermatzen ditu. Hain zuzen, honako hauetaz ari gara: 2003ko Biltzar Nagusietarako hauteskundeetako botoaren banaketa ofizial erreala, eta adinaren, sexuaren, ikasketa mailaren, lan egoeraren eta euskalduntze mailaren arabera kopuru ofizial errealez. Emaitzen konparazioa egiaztatu egin da, bai EAEn bai lurralde bakoitzari dagokionez.
- Populazioaren guztizkoak ez ezik, sexuaren arabera segmentatzea ere kontuan hartu da datuak aztertzeko, bai eta, kasu bakoitzerako, **segmentatze soziodemografiko eta soziopolitikoak** ere, gizarte kolektiboen arteko ezberdintasunen arabera. Honako hauek dira kontuan hartu diren aldagaiak (eta eraturako azpi-kolektiboak, letra etzanean):
  - Sexua: *gizonezkoak eta emakumezkoak*.

Eta gizonezko eta emakumezko talde horien barruan:

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Adin taldeak: *15-17, 18-29, 30-45, 46-64 eta >=65*.
- Udalerriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (>120.000 biztanle: Gasteiz, Bilbo eta Donostia).
- Ikasketa maila: *<lehen mailakoak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta goi-mailakoak*.
- Bikotekidearekin bizi: *bai, ez*.
- Egoera zibila: *ezkongabea bikotekiderik gabe* (bikotekidea izan ahal du ala ez, baina izatekotan ez da berarekin bizi), *ezkongabea bikotekidearekin* (badauka eta berarekin bizi da), *ezkondua, banandua-dibortziatua, alarguna*.
- Lan egoera: *lanean, langabezian, etxeko lanak<sup>1</sup>, ikasten eta erretiratua*.
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (erdi mailatik behera edo langileena), *erdikoa* eta *altua* (erdi mailatik gora edo aberatsen maila).
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (oso ezkerrekoa + ezkerrekoa + zentro ezkerrekoa), *zentroa, eskuina* (zentro eskuinekoa + eskuinekoa + oso eskuinekoa), *ed/ee*.

---

<sup>1</sup> Gizonezkoen kasuan, «Etxeko lanak» kategoriari dagozkion datuak ez dira tauletan sartu, kategoria horretan oso lagun gutxi daudelako.

## **Laburpena**

## Puntuz puntu

### ZER JARRERA AGERTZEN DUTE EAE-KO BIZTANLEEK GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAREN AURREAN?

Berdintasunaren gaiak bat-batean zer iradokitzen duen galdetzean, erantzunik aditzera eman gabe, EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 38k aintzat hartzen dituzte lortutako aurrerapenak, eta aldi berean berdintasun maila handiagoa eskatzen dute; % 22k ongi baliosten dute orain arte lorturikoa, besterik gabe; % 16k hainbat arlotan dauden ezberdintasunak salatzen dituzte; % 7 eszeptikoak dira berdintasuna lortzeari dagokionez, eta % 1 berdintasunaren kontrakoak dira. % 2k bestelako erantzunak ematen dituzte, eta % 14k ez dute erantzuten.

Biztanleen % 81ek garrantzi handia edo hala-holakoa ematen diote gizon eta emakumeen arteko berdintasunari, eta emakumeek garrantzi handiagoa ematen diote gizonen baino.

% 91k uste dute gizon eta emakumeen arteko berdintasunak giza harremanak hobetzen dituela; % 89k gizon eta emakumeen garapen pertsonala errazten duela uste dute, eta % 85ek demokrazia sendotzen duela. Berdintasunak dakartzan aldaketei dagokienez, % 68k uste dute lanaren antolaketan aldaketa eskatzen duela, eta % 63k familia harremanak aldatzea.

Eguneroko bizimoduaren antolaketan zailtasunik sortzen duen galdetuta, % 45ek uste dute baietz eta beste hainbestek (% 46) kontrako iritzia du.

Berdintasunari buruzko galdera jakin batzuk eginda, EAEko biztanleen artean alde daudenen ehunekoak oso handiak dira, hezkuntzari dagokionez bereziki. % 97k uste dute eskolak irakatsi behar duela neska eta mutilen arteko errespetua, bizikidetzeta eta arazoak biolentziarik gabe konpontzen, eta % 93ren iritziz, eskolak neska eta mutilen modu berean irakatsi behar die etxeko lanak egiten eta familia ardurak (seme-alabak, pertsona adinduak)

berdin hartzeko gai izaten. Horrez gain, % 93k uste dute ona litzatekeela gizonen zein emakumeen berdintasunez etxeko lanak egitea eta umeak eta adinekoak zaintzea; % 92k nahiko lukete emakumeek politikagintzan gizonen pareko kopuruan parte hartzea, eta, azkenik, % 91k pentsatzen dute etxetik kanpo lana izatea gizonentzat bezain garrantzitsua dela emakumeentzat.

### NOLA IKUSTEN DA GIZONEN ETA EMAKUMEEN EGOERA? BERDINTASUNEAN ALA EZBERDINTASUNEAN?

Etxe barruko arloan ezin da ezberdintasuna ukatu: nahiz eta EAEn bikotekidearekin bizi direnen % 33k esaten duten etxeko lanak erdi bana egiten dituztela, banaketa berdina ez denean, emakumeek askoz gehiagotan hartzen dituzte lan horiek beren gain gizonen baino (kasuen % 63tan emakumeek egiten dituzte etxeko lan guztiak edo gehienak, eta gizonen, aldiz, % 2tan). Azpimarratu behar da gizonen eta emakumeen ez dutela egoera berdina ikusten. Gizonen gehiagotan uste dute etxeko lanak erdi bana egiten dituztela emakumeen baino.

Lanaren arloan ere ezberdintasunak nabariak dira: adin, prestakuntza eta esperientzia baldintza berdinetan, lanpostu bat lortzeko, gizonen aukera handiagoa dute emakumezkoen % 65en iritziz eta gizonen % 47ren ustez. Gizonen gehiago ikusten dute gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna (% 31) emakumeen baino (% 19), emakumeen aukera handiagoa, aldiz, emakumeen %2k baino ez dute aipatzen, eta gizonen % 5ek.

Lana lortzeari dagokionez, EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleak bat etortzen dira autonomia ekonomikoa emango dien lana izatea emakumeentzat oso garrantzitsua delako baieztapenarekin (% 91); hala ere, uste dute emakumeek gizonen baino zailtasun gehiago dituztela haien ikasketara eta prestakuntzara mailari dagokion lanpostua aurkitzeko (% 80), eta halaber uste dute langabezia gelditzeko arrisku gehiago dutela (% 79) eta langabezia daudenean marjinazio eta esplotazio arrisku gehiago dutela



gizonek baino (% 71). Aldiz, herritarrak ez datoz bat esatearekin lanpostu gutxi daudenean gizonek eskubide gehiago izan beharko luketela lanpostu bat izateko emakumeek baino (% 76 ez datoz bat). Eta lanean mailaz igotzeari dagokionez, % 82k uste dute emakumeek gizonek baino zailtasun gehiago gainditu behar dituztela goi mailako ardura lanpostuak lortzeko, eta % 67ren iritiz, emakumeek denbora gutxiago dute goi mailako ardura lanpostuak betetzeko, familiaren zama dela kausa. Populazioa ez dago ados (% 69) baieztatzen zaionean emakumeak ez daudela gizonak bezain interesatuta goi mailako ardura lanpostuak betetzeko. Emakumezkoek gehiago azpimarratzen dituzte ideia horiek guztiak gizonezkoek baino.

Famila eta lan bizitza bateratzean ere ezberdintasun handiak ikusten dira: biztanleen % 88k uste dute gizonek arazo gehiegirik gabe bateratu ahal dituztela lanean aritzea eta haurrak izatea, eta aldiz, % 31k baizik ez dute pentsatzen posible dela bi horiek bateratzea emakumeen kasuan; emakumei dagokionez, gehienek uste dute (% 61) askotan umeak izatearen edo lanean aritzearen artean aukeratu beharra dutela.

Azkenik, populazioaren gehiago handiak uste du administrazio publikoak, enpresek, sindikatuek, patronalak eta bestelako gizarte taldeek emakumeen egoera hobetzeari garrantzi handiagoa eman beharko lioketela (% 93 ideia horren alde daude).

### **ZER NEURRI HARTU BEHARKO LIRATEKE BERDINTASUNAREN ALDE?**

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak gutxitzeko edo desagertzeko orduan, EAEko biztanleen % 47k uste dute biek aldatu behar dutela, %42k uste dute lehenik gizonek aldatu behar dutela, eta % 7k baizik ez du pentsatzen lehenik emakumeek aldatu behar dutela. Lehenik gizonek aldatu behar dutelako ideia apur bat zabalduago dago emakumeen artean gizonen artean baino.

Ekiteko orduan, % 59ren ustez, emakumeek beren eskubideen alde batera egindako ekintza da eraginkorrena; % 13k uste dute emakume bakoitza bere eskubideak babesteko banaka borrokatzea dela onena, eta % 20k, ordea, bi estrategiak konbinatzearen aldekoa da.

Ezberdintasunak murrizteko neurri gisa, hainbat jarrera aldaketa proposatzen zaionean, populazioaren gehiago handiak haietariko bakoitzaren aldeko iritzia agertzen du. Biztanleen %95ek eraginkortzat jotzen dute gizonezkoek etxeko lanetan parte hartzea, euren seme-alabei exenplua emanez; %94k uste dute eraginkorra litzatekeela gizonezkoek emakumeak beren parekotzat onartzea, emakumeen nahiak, iritzia, lana eta abar balioetsiz; %93ren iritiz, ezberdintasunak murrizteko eraginkorra litzateke gizonezkoak kritikoak izatea euren kide eta lagunek emakumeekin errespetu gutxiko jarrerak dituztenean; %91k diote eraginkorra litzatekeela emakumeek gizarteari dohainik eskaintzen dioten lana botere ekonomiko eta politikoei aintzakotzat hartzea eta balioestea; %90en ustez gizonek, berdintasunak eurentzat ere abantailak dituela onartzea eraginkorra litzateke eta %89ren ustez gizonak emakumeen eskubideen defentsan aktiboak izatea.

Horrez gain, hainbat neurri hartzea proposatzen da, eta biztanle gehienek haien aldeko iritzia ematen dute, bereziki emakumeek, ondoren adierazten den bezala.

Hona hemen bizitza publikorako proposaturiko neurriak, eta lortu duten babesa: ikasleek konfiantzako pertsona bat izatea ikastetxean, biolentziarik edo eraso sexualik gertatzen denean, harengana jotzeko (% 95); hedabide publikoek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egitea beren programazioan (% 93); kirol probetako sariak berdina izatea gizon eta emakumeentzat (% 86); neurriak hartzea gizonek eta emakumeek politikan antzeko parte hartzea bermatzeko (% 85), eta telebistek eta, oro har, hedabideek emakume kirolarien informazio gehiago ematea (% 80).

Lanaren arloan, biztanleen % 93 enpresek gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko neurriak abian jartzearen alde daude; era berean,

% 93 ados daude administrazio publikoak zorrotzago jokatzearekin, lanpostu berdinetarako, gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasunak zuzentzeko, eta % 93, halaber, jazarpen sexualik gertatuz gero, enpresek norbait izatearen alde daude, langileek harengana jo ahal izateko; % 89 alde agertzen dira lege zorrotzagoak eta kontrol handiagoak egotearekin emakumeek lana aurkitzeko eta mantentzeko zailtasunik izan ez dezaten, seme-alaba eta nagusien zainketa lanak direla eta; % 85 ados daude emakumeak diskriminatzen dituzten enpresek diru laguntza publikorik ez jasotzearekin eta administrazio publikoarekin kontraturik ez izatearekin; azkenik, % 83 emakumeen egoera hobetzeko lan egiten duten enpresei administrazio publikoak diru laguntzak ematearen alde daude.

Familia eta lan bizitza bateratzeari dagokionez, % 92k bat egiten dute aitek eta, oro har, gizonek ere seme-alabak eta pertsona adinduak zaintzeko baimenak eta eszedentziak hartu beharko lituzketelako proposamenarekin; % 91 ados daude beren ardurapean pertsona adindunak dituzten familiek gaur egungoa baino laguntza handiagoa izatearekin; % 88 enpresek ordutegi malguak izatearen alde daude, langileak familiako egoera bereziet arduratu ahal izateko (gaixoaldiak, etab.); % 87k aldeko iritzia dute langileek familiarekiko dituzten erantzukizunak bete ahal izateko neurriak hartzen dituzten enpresei administrazio publikoak dirulaguntzak eman behar dizkiela proposatzen denean; % 83 bat datoz haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeek umeez arduratzeko ordutegi eta egutegi malguagoak izan behar dituztelako proposamenarekin, hala aitek zein amek arazorik ez izateko lan ordutegia betetzen, eta % 82k aldeko iritzia dute proposatzean umeak ardurapean dituzten bikotekiderik gabeko amek zein aitek lehentasuna izan behar dutela hainbat zerbitzutan, hala nola haurtzaindegian, haur eskolan, jantokian, garraioan, etab.etan.

Edonola ere, % 83k berdintasunaren aldeko neurri gehiago hartzeko beharra aldarrikatzen du, eta % 9k, aldiz, uste dute hartutako neurriak nahiko direla, eta % 1ek neurri gehiegi hartu direla. Hala, bada, biztanleen % 81en iritziz, EAEn gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako lege batek egon beharko luke. Emakumeek gizonen baino gehiago

azpimarratzen dute neurri gehiago hartzeko beharra eta, haien artean, berdintasunerako lege baten beharra.

### Europar Batasunarekin alderatuta

Europakoekin alderatuta, gehiago dira EAEn gizon eta emakumeen arteko berdintasunak giza harremanak hobetzen dituela uste duten biztanleak. Hala ere, ehunekoak oso antzekoak dira berdintasunak gizon eta emakumeen garapen pertsonala hobetzen duela eta demokrazia sendotzen dituela uste dutenei dagokienez.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak kontuan hartuta, badirudi etxe barruko arloan hobeto gaudela Europako gizonak eta emakumeak baino: emandako erantzunen arabera etxeko lanen banaketa orekatua handiagoa da EAEn (% 33) EBn baino (% 28).

Lanaren arloan, aldiz, EAEko egoera ez da hain ongi ikusten: Europan neurri handiago batean nabarmentzen da lanpostua lortzeko gizon eta emakumeen aukera berdintasuna; izan ere, ia Europako gizonen gehiengoak sinesten du aukera berdintasunean (% 47, EAEko gizonen % 31ren aldean), eta Europako emakumeen artean, ehunekoa txikiagoa bada ere (% 36) gizonen artean baino, EAEn baino handiagoa da (% 19).

Lana eta familia bateratzeko aukera nola ikusten den kontuan hartzean ere Europan atzetik gaude; EAEn % 31k uste dute emakumeek arazorik gabe bateratu ahal dituztela umeak izatea eta lanean aritzea, eta Europan, ordea, ehunekoa % 47raino igotzen da.

Bi arlo horietan, bat datoz adieraztean ezberdintasunak gutxitzeko lehenik gizonen aldatu behar dutela, edota bai gizonen bai emakumeen, eta gutxiengoa dira lehenengo emakumeek aldatu behar dutela uste dutenak. EAEko eta Ebko biztanleak bat datoz halaber gehiengoak adierazten duenean emakumeek batera ekin behar diotela beren eskubideen alde.

## Azken buruan

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiak **orain arteko lorpenen balioespena eta aldi berean** berdintasun maila handiagoaren **aldarrikapena** iradokitzen ditu bat-batean. Hainbat arlotan dauden ezberdintasunen salaketak ere atzematen dira, bai eta eszeptizismo apur bat ere berdintasuna lortzeari dagokionez. Edonola ere, oso gutxiengoz txikiak baizik ez du berdintasuna kritikatzeko.

EAEko biztanleek **garrantzi handia** ematen diote gizon eta emakumeen arteko berdintasunari eta uste dute giza harremanak hobetzen dituela, gizon eta emakumeen garapen pertsonala errazten duela, eta demokrazia sendotzen duela. Halaber, haien iritziz, berdintasunak lanaren antolaketan eta familia harremanetan aldaketa eskatzen du. Eta ez dago aldeko edo kontrako iritzi argi bat eguneroko bizimoduaren antolaketan zailtasunak ekartzen dituela baieztatzen denean. Edonola ere, argi eta garbi azaltzen da iritzia berdintasunean hezteko beharraren alde eta gizonen zein emakumeen etxeko, politikako eta laneko arloetan berdintasunaren alde.

Hain zuzen ere, herritarrek **gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handiak** atzematen dituzte, bai etxe barruan (etxeko lanen banaketa), bai laneko arloan (lana lortzea edo lanean mailaz igotzea) zein familia eta lana bateratzean (aldi berean seme-alabak izan eta lanean aritzea), beti ere emakumeen kaltean. Horregatik, hainbat estamentuk esku hartzeko eskatzen da (administrazio publikoa, enpresak, sindikatuak, patronala eta bestelako gizarte taldeak) emakumeen egoera hobetzeraren.

Atzematen den **ezberdintasun egoera hori aldatzeko**, herritarrek uste dute bai gizonen zein emakumeen aldatu behar dutela, baina lehenengo gizonen batez ere (bereziki jarrerak aldatzea), eta ez da eraginkortzat jotzen emakumeen banakako ekintza, baizik eta emakumezkoen kolektibo osoaren ekintza edota bi estrategia horiek batera.

EAEko biztanleek uste dute beharrezkoa dela **berdintasunerako neurri gehiago hartzea**, eta gehiengo handi bat dago gizon eta emakumeen arteko berdintasuna helburutzat hartuta proposatu diren neurri guztien alde, bai arlo publikoan, bai lan arloan zein familia eta lan bizitza bateratzeko. Halaber, EAEn berdintasunerako lege bat egotea eskatzen dute.

## **Zehaztasun teknikoak**

Informazioa **2003ko urriaren 7tik 18ra** (biak barne) bildu zen galdesorta egituratu eta itxi bidezko banakako elkarrizketa baliatuz; elkarrizketa etxez etxe egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzeko lagin adierazgarriari.

**Lagina**, 15 urte eta gehiagokoentzat prestatua, honako modu honetan banatu zen: 644 pertsona Araban, 1330 Bizkaian eta 1022 Gipuzkoan, hau da, guztira 2996 pertsonari egin zaie elkarrizketa. Inkestatuak prozedura polietapiko eta estratifikatu bidez aukeratu ziren, eta ausazko ibilbideak jarraitu ziren (214 laginketa puntutan oinarrituta<sup>2</sup>); norbanakoak sexuaren, adinaren eta okupazio nagusiaren kuoten bidez hautatu ziren, eta gero, biztanleriaren tamainaren eta 2003ko maiatzeko Biltzar Nagusietarako hauteskundeetan bozkatu zenaren oroimenaren arabera haztatu ziren, hiru lurraldeetako bakoitzean.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakarietzako Kabineteak eta Emakundek batera egin dute ikerketaren **diseinua**, eta emaitzen **azterketa** eta **txostena**, ordea, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen eskumenekoak dira erabat. Ikertalde enpresak (Askatasunaren hiribidea, 17-19, Donostia. 20004) bildu zuen informazioa.

2996 laguneko lagin honi dagokion **lagin errorea**, eta lagina hertsiki ausazkoa izatearen kasu teorikoan esleigarria, %  $\pm 1,83$ koa da EAErako, % 95,5eko konfiantza mailarekin eta  $p=q=0,5$ .

---

<sup>2</sup> Hasierako toki fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzean (azterketako gutxieneko unitate geografikoa) jasotako kale zatien artean, eta EUSTATEk egindako kale izendegiaren arabera.

Inkestei telefono bidezko **kontrola** (% 48,1) eta etxez etxeko kontrola (% 6,8) egin zaizkie. Halaber, kontrol informatiko egokiak ere (logikoak, koherentziakoak eta heinari buruzkoak) egin dira jasotako galdetegi bakoitzean.

## **A - Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak**

- **Berdintasunaren inguruko ideiak**
- **Berdintasunaren garrantzia**
- **Berdintasunaren ondorioak**
- **Berdintasunari buruzko iritziak**

# Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak

## Berdintasunaren inguruko ideiak


(GUZTIZKOAK)

Zer datorkizu burura gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aipamena entzuten duzunean?\*

|  | EAE<br>ES 2003 URR. |
|--|---------------------|
| LORTUTAKO AURRERAPENAK BALIOETSI BAINA BERDINTASUN HANDIAGOAREN ESKAERA..... | 38                  |
| BERDINTASUNAREN ALDEKO IRITZIAK, ORO HAR .....                               | 22                  |
| EZBERDINTASUNAREN SALAKETAK HAINBAT ARLOTAN .....                            | 16                  |
| BERDINTASUNA LORTZEARI BURUZKO ESZEPTIZISMOA .....                           | 7                   |
| BERDINTASUNAREN KONTRAKO IRITZIAK .....                                      | 1                   |
| BESTEAK .....  | 2                   |
| Ed/Ee .....  | 14                  |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) .....   | 100                 |

\* GALDERA IREKIA, INOLAKO ERANTZUNIK ADITZERA EMAN GABE.

Zer datorkizu burura gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aipamena entzuten duzunean?



EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEEI GALDETU ZAIE EA ZER DATORKIEN BURURA GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA AIPATZEN ZAIENEAN, ETA % 38K ORAIN ARTEKO LORPENAK AIPATU DITUZTE, BALIO POSITIBOA EMATEN DIETE, ETA ALDI BEREAN BERDINTASUN HANDIAGOA ESKATZEN DUTE, HAU DA, AURRERAPENEZ HITZ EGITEN DA, BAINA USTE DUTE ORAINDIK EZ DELA BERDINTASUNA LORTU, ORAINDIK BADIRELA EZBERDINTASUN BATZUK ETA HORIEN KONTRA BORROKA EGIN BEHAR DELA. BERDINTASUNA LORTZEKO NEURRI ZEHATZ BATZUK ERE PLANTEATZEN DITUZTE.

% 22K BERDINTASUNAREN ALDEKO IRITZIAK EMATEN DITUZTE, ORO HAR, ETA POSITIBOTZAT JOTZEN DU LORTU IZANA.

BESTALDE, % 18K HAINBAT ARLOTAN EZBERDINTASUNAK DAUDELA SALATZEN DUTE: ESKUBIDE OROKORREI DAGOZKIEN EZBERDINTASUNAK ETA, ZEHAZKI, EZBERDINTASUNAK LAN ARLOAN (LAN BALDINTZAK, SOLDATAK, ETAB.) EDO ETXEAN.

% 7K ESZEPTIZISMOA ADIERAZTEN DUTE BERDINTASUNA LORTZEARI BURUZ, USTE DUTE EZ DELA INOIZ LORTUKO, BERDINTASUNA UTOPIA DELA, LORTZEN OSO ZAILA EDO EZINEZKOA DELA.

% 1-EK BERDINTASUNAREN KONTRAKO IRITZIAK EMATEN DITUZTE, BERDINTASUNAREN KONTRA, ORO HAR, ZEIN BERDINTASUNA LORTZEKO NEURRI ZEHATZEN KONTRA; BATZUEK USTE DUTE MUGAK GAINDITU DIRELA ETA BERDINTASUN GEHIEGI DAGOELA.

GALDETUTAKOEN % 2K BESTELAKO ERANTZUNAK EMATEN DITUZTE, ETA HAIETAKO BAKOITZAK OSO EHUNEKO TXIKIA DU: TRATU TXARRAK, GAIAREN BERRITASUNA, ETAB. AIPATZEN DIRA. ETA % 14K EZ DUTE ERANTZUTEN.

# Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak

## Berdintasunaren inguruko ideiak

(KOLEKTIBOKA)

| Zer datorkizu burura gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aipamena entzuten duzunean?* |                                     |                  |               |                           |          |                                       |                                     |                    |               |                           |          |     |     |
|--|-------------------------------------|------------------|---------------|---------------------------|----------|---------------------------------------|-------------------------------------|--------------------|---------------|---------------------------|----------|-----|-----|
|  | EAE<br>ES 2003 URR.                 | SEXUA            |               |                           |          |                                       |                                     |                    |               |                           |          |     |     |
|  |                                     | GIZONEZKOAK      |               |                           |          |                                       |                                     | EMAKUMEZKOAK       |               |                           |          |     |     |
|  |                                     | GUZTIRA<br>GIZON | EGOERA ZIBILA |                           |          |                                       |                                     | GUZTIRA<br>EMAKUME | EGOERA ZIBILA |                           |          |     |     |
| EzKONGABEA<br>BIKOTEKIDE-<br>RIK GABE  | EzKONGABEA<br>BIKOTEKIDEA-<br>REKIN |                  | EzKONDUA      | BANANDUA-<br>DIBORTZIATUA | ALARGUNA | EzKONGABEA<br>BIKOTEKIDE-<br>RIK GABE | EzKONGABEA<br>BIKOTEKIDEA-<br>REKIN |                    | EzKONDUA      | BANANDUA-<br>DIBORTZIATUA | ALARGUNA |     |     |
| LORTUTAKO AURRERAPENAK BALIOETSI BAINA BERDINTASUN<br>HANDIAGOAREN ESKAERA .....             | 38                                  | 40               | 40            | 46                        | 39       | 28                                    | 48                                  | 37                 | 35            | 31                        | 39       | 24  | 38  |
| BERDINTASUNAREN ALDEKO IRITZIAK, ORO HAR.....  | 22                                  | 21               | 21            | 15                        | 21       | 25                                    | 25                                  | 22                 | 22            | 18                        | 21       | 29  | 27  |
| EZBERDINTASUNAREN SALAKETAK HAINBAT ARLOTAN .....  | 16                                  | 16               | 16            | 21                        | 16       | 7                                     | 11                                  | 15                 | 13            | 22                        | 14       | 21  | 20  |
| BERDINTASUNA LORTZEAREI BURUZKO ESZEPTIZISMOA .....  | 7                                   | 8                | 8             | 9                         | 8        | 8                                     | 5                                   | 7                  | 8             | 7                         | 7        | 9   | 5   |
| BERDINTASUNAREN KONTRAKO IRITZIAK.....   | 1                                   | 1                | 1             | 0                         | 1        | 0                                     | 0                                   | 1                  | 0             | 0                         | 1        | 0   | 1   |
| BESTEAK .....  | 2                                   | 2                | 2             | 1                         | 1        | 10                                    | 5                                   | 3                  | 4             | 1                         | 3        | 0   | 3   |
| Ed/Ee .....  | 14                                  | 13               | 11            | 7                         | 14       | 22                                    | 5                                   | 15                 | 18            | 22                        | 15       | 17  | 7   |
| (EHUNEKO BERTIKALAK).....  | 100                                 | 100              | 100           | 100                       | 100      | 100                                   | 100                                 | 100                | 100           | 100                       | 100      | 100 | 100 |

\* GALDERA IREKIA, INOLAKO ERANTZUNIK ADITZERA EMAN GABE.



Ez da ezberdintasunik aurkitzen gizon eta emakumeen arteko berdintasunak batzuei eta besteei, oro har, burura ekartzen dienari dagokionez.



Emakume banandu edo dibortziatei izan ezik, gainerakoei gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruz galdetzen zaienean, burura datorkien lehena da berdintasunaren mesedetan lortutako aurrerapenak balioestea, baina berdintasun handiagoa aldarrikatzea. Emakume banandu edo dibortziatek, aldiz, berdintasunaz oro har hitz egitera jotzen dute, hainbeste aldarrikapen egin gabe. Ezberdintasunak gehien salatzen dituztenak bikotekidearekin bizi diren ezkongabeak dira, gizonak zein emakumeak. Horien artean, ezberdintasunen salaketek berdintasunaren alde oro har emandako iritziak gaunditzen dituzte. Azpimarratu behar da emakume banandu, dibortziate eta alargunen artean ezberdintasunen salaketak ugariagoak direla gizonetzko banandu, dibortziate eta alargunen artean baino.



## Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak


### Berdintasunaren garrantzia

(GUZTIZKOAK)

Zer garrantzi ematen diozu gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiari?

|                           | EAE<br>ES 2003 URR. |
|---------------------------|---------------------|
| HANDIA .....              | 43                  |
| HALA-HOLAKOA.....         | 38                  |
| TXIKIA.....               | 14                  |
| BATERE EZ .....           | 4                   |
| Ed/Ee .....               | 1                   |
| (EHUNEKO BERTIKALAK)..... | 100                 |

### Berdintasunaren garrantzia



EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEE IA ERDIAK (% 43) GARRANTZI HANDIA EMATEN DIOTE GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAREN GAIARI. GAINERA, % 38K HALA-HOLAKO GARRANTZIA EMATEN DIOTE, ETA, BERAZ, ARAZOARI GARRANTZIA EMATEN DIOTENEN EHUNEKOA % 81-ERA IRISTEN DA.

ALDIZ, % 14K GARRANTZI TXIKIA EMATEN DIOTE ETA % 4K BATERE GARRANTZIRIK EZ.

# Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak

## Berdintasunaren garrantzia

(KOLEKTIBOKA)

### Zer garrantzi ematen diozu gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiari?

|                              | EAE<br>ES 2003<br>URR. | SEXUA            |                                       |                                     |               |                                |               |                           |                         |                            |                       |                                       |                    |                                     |               |                                |               |                           |                         |                            |                       |  |
|------------------------------|------------------------|------------------|---------------------------------------|-------------------------------------|---------------|--------------------------------|---------------|---------------------------|-------------------------|----------------------------|-----------------------|---------------------------------------|--------------------|-------------------------------------|---------------|--------------------------------|---------------|---------------------------|-------------------------|----------------------------|-----------------------|--|
|                              |                        | GIZONEZKOAK      |                                       |                                     |               |                                |               |                           |                         |                            |                       | EMAKUMEZKOAK                          |                    |                                     |               |                                |               |                           |                         |                            |                       |  |
|                              |                        | GUZTIRA<br>GIZON | EGOERA ZIBILA                         |                                     |               |                                |               | IKASKETA MAILA            |                         |                            |                       |                                       | GUZTIRA<br>EMAKUME | EGOERA ZIBILA                       |               |                                |               |                           | IKASKETA MAILA          |                            |                       |  |
|                              |                        |                  | EZKONGABEA<br>BIKOTEKIDE-<br>RIK GABE | EZKONGABEA<br>BIKOTEKI-<br>DEAREKIN | EZKON-<br>DUA | BANANDUA-<br>DIBORTZIA-<br>TUA | ALAR-<br>GUNA | < LEHEN<br>MAILA-<br>KOAK | LEHEN<br>MAILA-<br>KOAK | BIGARREN<br>MAILA-<br>KOAK | GOI<br>MAILA-<br>KOAK | EZKONGABEA<br>BIKOTEKIDE-<br>RIK GABE |                    | EZKONGABEA<br>BIKOTEKI-<br>DEAREKIN | EZKON-<br>DUA | BANANDUA-<br>DIBORTZIA-<br>TUA | ALAR-<br>GUNA | < LEHEN<br>MAILA-<br>KOAK | LEHEN<br>MAILA-<br>KOAK | BIGARREN<br>MAILA-<br>KOAK | GOI<br>MAILA-<br>KOAK |  |
| HANDIA.....                  | 43                     | 38               | 36                                    | 33                                  | 40            | 41                             | 23            | 28                        | 34                      | 37                         | 48                    | 49                                    | 55                 | 51                                  | 47            | 59                             | 38            | 44                        | 44                      | 52                         | 59                    |  |
| HALA-HOLAKOA ..              | 38                     | 39               | 42                                    | 47                                  | 37            | 39                             | 23            | 41                        | 36                      | 42                         | 38                    | 37                                    | 33                 | 33                                  | 39            | 30                             | 38            | 32                        | 41                      | 35                         | 33                    |  |
| GUTXI.....                   | 14                     | 16               | 15                                    | 16                                  | 17            | 13                             | 36            | 20                        | 20                      | 17                         | 9                     | 11                                    | 10                 | 12                                  | 11            | 5                              | 15            | 15                        | 12                      | 11                         | 6                     |  |
| BATERE EZ .....              | 4                      | 5                | 4                                     | 4                                   | 5             | 2                              | 19            | 10                        | 8                       | 2                          | 4                     | 2                                     | 2                  | 2                                   | 2             | 5                              | 6             | 6                         | 3                       | 2                          | 0                     |  |
| Ed/EE .....                  | 1                      | 2                | 3                                     | 0                                   | 1             | 5                              | 0             | 1                         | 2                       | 2                          | 1                     | 1                                     | 0                  | 1                                   | 1             | 1                              | 3             | 2                         | 1                       | 0                          | 2                     |  |
| (EHUNEKO<br>BERTIKALAK)..... | 100                    | 100              | 100                                   | 100                                 | 100           | 100                            | 100           | 100                       | 100                     | 100                        | 100                   | 100                                   | 100                | 100                                 | 100           | 100                            | 100           | 100                       | 100                     | 100                        | 100                   |  |

- Ikertu diren kolektibo ia guztietan gehiago handi batek jotzen du gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaia oso edo nahiko garrantzitsutzat.
- Emakumeek, oro har, gizonak baino garrantzi handiagoa ematen diote bien arteko berdintasunaren gaiari (emakumezkoen % 49k, batetik, eta gizonezkoen % 38k, bestetik, uste dute gaiak garrantzi handia duela).
- Gizonezko alargunak dira garrantzirik txikiena ematen diotenak; haien artean gutxiago dira gaia oso edo nahiko garrantzitsua dela uste dutenak (% 46), garrantzi txikia edo batere ematen ez diotenak baino (% 55). Emakume alargunek ere gainerako emakumeek baino garrantzi txikiagoa ematen diote, baina gizonezko alargunen mailara iritsi gabe. Emakumezkoen artean, bananduak edo dibortziatuak dira garrantzirik handiena ematen diotenak.
- Bai gizonen bai emakumeen ikasketa maila handiagoa den heinean, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari ematen zaion garrantzia ere handiagoa da.

# Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak

## Berdintasunaren ondorioak

(GUZTIZKOAK)

*Esadazu, mesedez, ondoko iritzi bakoitzarekin oso ados, ados, kontra edo oso kontra zauden. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunak...?*

|  | EAE<br>ES 2003 URR. | E.B.<br>EUROBAROMETER<br>44.3 – 1996 * |
|--|---------------------|--|
| <b>GIZA HARREMANEN KALITATEA HOBETZEN DU</b>                       |                     |  |
| Oso ADOS + Ados .....  | 91                  | 86,1                                   |
| KONTRA + Oso KONTRA.....   | 3                   | 7,1                                    |
| Ed/Ee.....   | 6                   | 6,7                                    |
| <b>GIZON ETA EMAKUMEEN GARAPEN PERTSONALA ERRAZTEN DU</b>          |                     |  |
| Oso ADOS + Ados .....  | 89                  | 86,9                                   |
| KONTRA + Oso KONTRA.....   | 5                   | 6,4                                    |
| Ed/Ee.....   | 6                   | 6,6                                    |
| <b>DEMOKRAZIA SENDOTZEN DU</b>                                     |                     |  |
| Oso ADOS + Ados .....  | 85                  | 83,4                                   |
| KONTRA + Oso KONTRA.....   | 6                   | 7,2                                    |
| Ed/Ee.....   | 9                   | 9,3                                    |
| <b>LANAREN ANTOLAKETAN ALDAKETA ESKATZEN DU</b>                    |                     |  |
| Oso ADOS + Ados .....  | 68                  | -                                      |
| KONTRA + Oso KONTRA.....   | 24                  | -                                      |
| Ed/Ee.....   | 8                   | -                                      |
| <b>FAMILIA HARREMANEN ALDAKETA ESKATZEN DU</b>                     |                     |  |
| Oso ADOS + Ados .....  | 63                  | -                                      |
| KONTRA + Oso KONTRA.....   | 29                  | -                                      |
| Ed/Ee.....   | 8                   | -                                      |
| <b>EGUNEROKO BIZIMODUAREN ANTOLAKETAN ZAILTASUNAK SORTZEN DITU</b> |                     |  |
| Oso ADOS + Ados .....  | 45                  | -                                      |
| KONTRA + Oso KONTRA.....   | 46                  | -                                      |
| Ed/Ee.....   | 8                   | -                                      |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) .....   | 100                 | 100                                    |

\* EUROPAR BATASUNARI DAGOKION DATUAK (KIDE DIREN 15 HERRIALDEEN BATEZ BESTEKOA) «EQUAL OPPORTUNITIES FOR WOMEN AND MEN IN EUROPE?» IZENBURUA DUEN IKERKETATIK DATOZ, EUROBAROMETER 44.3RI DAGOKIONETIK, HAIN ZUZEN ERE. EUROBAROMETER IKERKETAN EZ ZEN SOZIOMETROAN KONTSATUTAKO IRITZI GUZTIEZ GALDETZEN, BERAZ KASU BATZUETAN EZ DAGO EUROPAR BATASUNAREKIN KONPARATZEKO DATURIK.

EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEEN % 91 ADOS AGERTZEN DIRA (OSO ADOS EDO ADOS) GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAK GIZA HARREMANEN KALITATEA HOBETZEN DUELAKO BAIEZTAPENAREKIN. GAINERA, % 89K USTE DUTE GIZON ETA EMAKUMEEN GARAPEN PERTSONALA HOBETZEN DUELA, ETA % 85-EK DEMOKRAZIA SENDOTZEN DUELA.

BERDINTASUNAK DAKARTZAN ALDAKETEN BEHARRARI DAGOKIONEZ, % 68 ADOS DAUDE LANAREN ANTOLAKETAN ALDAKETA ESKATZEN DUELA ESATEN ZAIENEAN, ETA % 63K USTE DUTE FAMILIA HARREMANETAN ERE ALDAKETA ESKATZEN DUELA.

AZKENIK, IRITZIAK BEREIZI EGITEN DIRA BERDINTASUN HORREK EGUNEROKO BIZIMODUAREN ANTOLAKETAN ALDAKETA ESKATZEN DUELAKO IDEIAREN AURREAN. BATETIK, % 45-EK HALA USTE DUTE, ETA BESTETIK, % 46K IDEIA HORREKIKO DESADOSTASUNA ADIERAZTEN DUTE.

2003an gizon eta emakumeen arteko berdintasunak giza harremanak hobetzen dituela uste duten EAEko biztanleak, gizonak zein emakumeak, gehiago dira (% 91) 1996an iritzi bera eman zuten Europako biztanleak, gizonak zein emakumeak, baino (% 86,1); hala ere, ez da alderik ikusten berdintasunak gizon eta emakumeen garapen pertsonala errazten duela edo demokrazia sendotzen duela dioten ideiei dagokienez.

# Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko jarrerak

## Berdintasunaren ondorioak

(KOLEKTIBOKA)

Esadazu, mesedez, ondoko iritzi bakoitzarekin oso ados, ados, kontra edo oso kontra zauden. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunak...?

|  | EAE<br>ES 2003 URR. | SEXUA            |                       |     |                    |                       |     |
|--|---------------------|------------------|-----------------------|-----|--------------------|-----------------------|-----|
|  |                     | GIZONEZKOAK      |                       |     | EMAKUMEZKOAK       |                       |     |
